



**Gorbeialde**  
Landa Garapenerako Alkartea  
Asociación de Desarrollo Rural



# Gorbeialde Aldizkaria

## GORBEIALDEAKO LANDA GARAPEN ESKUALDEKO PLANA

**P**asadan uztailaren 21ean Gorbeialdeako Landa Garapenerako eskualdeko Programaren esparru estrategikoa egiaztatzeko eta balioztatzeko azkenengo tailerra ospatu zan.

Dokumentu hau 2014 urtean hasitako prozesuaren emaitza izan da eta bertan Arratia-Nerbioi eskualdean egin diren hausnarketa eta lantze prozesuatik sortu diren azkenengo emaitzak batzen dira. Prozesu hau aurreko LGP-ren azterketa batez hasi zan, eskualdeko plan desberdinak batuz eta aztertuz, eta eragile desberdinekaz tailerrak eginik jarraitu da. Bai tailer honetara bai aurrezdir egin dan tailerrara Arratia-Nerbioi eskualdeko 50 eragile baino gehiago gonbidatu dira, bai publikoak bai pribatuak.

Eskualdeko LGP-a plangintza estrategikorako tresna bat da, Euskadiko landa-ingurunearen garapenerako 10/1998 Legean jatorria dauena. LGP-ren dokumentoa eskualdeko landa-inguruaren antolaketa eta kudeaketa iraunkorrerako erabiltzeko tresna izan behar da, tartean dagozan eragile guztien laguntzagaz eta konpromisoagaz, dagozan baliabideak erabiliz eta eskualdeko garapena hobetzeko estrategia eta ekimenak zehaztuz.

Prozesu honen amaiera ez da azkenengo puntua izango. LGP-a bizirik dagoen dokumentu bat da eta indarrean dagoen bitartean aldatu egin daitekena.

Baita be, neurgarria dan dokumentu bat da, hau da, bertan parametro batzuk sartu dira indarrean dagoen bitartean bete behar diren helburuak neurtu ahal izateko.

Gorbeialdetik eskerrak emon dokumentu hau egiteko parte-hartu daben eragile guztiei eta egingo diren tailerretan parte-hartzea animatzen dogu, indarrean dagoen bitartean egon leitekez berrikuspenak eta balorazioak egiteko.

Informazio gehiago gure web gunean:

### AURKIBIDEA VII:

- Gorbeialdeako LGP-a
- Gorbeia Zure Etxean
- Gorbeia Ezagutu
- Alkarteko helbide barrie

## PLAN DE DESARROLLO COMARCAL DE GORBEIALDEA

**E**l pasado 21 de julio se celebró el último taller que sirvió para contrastar y validar el marco estratégico del Programa de Desarrollo Rural Comarcal de Gorbeialdea.

Dicho documento ha sido el resultado de un proceso comenzado durante el año 2014 y recoge los resultados finales derivados del proceso de reflexión y elaboración que se ha llevado a cabo en la comarca Arratia-Nerbioi, proceso que comenzó con el análisis del PDR anterior, recopilación y análisis de diferentes planes de la comarca y que ha continuado con la realización de talleres entre los diferentes agentes. Tanto a este taller como a otro que se ha realizado con anterioridad han sido invitados más de 50 agentes, públicos y privados, de la comarca de Arratia y Nervión.

El PDR Comarcal es un instrumento de planificación estratégica que emana de la Ley de Desarrollo Rural del País Vasco 10/1998. El PDR debe ser el documento que sirva de instrumento para la organización y gestión sostenible del medio rural comarcal, a través de la implicación y la asunción de compromisos por parte de todos los y las agentes implicados/as, la utilización de los recursos existentes y la definición de estrategias e iniciativas concretas encaminadas a garantizar el mejor

desarrollo integral de la comarca.

La finalización de este proceso no supone un punto y final. El PDR es un documento vivo que está abierto a posibles modificaciones durante su vigencia.

Así mismo, se trata de un documento medible, esto es, se han introducido una serie de parámetros que nos permitan medir el grado de cumplimiento de los objetivos tanto al final como durante su vigencia.

Desde la ADR Gorbeialde queremos agradecer a los diferentes agentes que han tomado parte en la elaboración de este documento y animamos a participar en el futuro en aquellos talleres que se celebren para posibles revisiones y valoraciones que se puedan realizar durante su periodo de vigencia.

Más información en nuestra página web:



## “GORBEIA ZURE ETXEAN” PROIEKTOA MARTXAN!!!

**Ekimen turistiko honek nekazaritzako elikagaien sektorea eta turismo enpresak elkarlanean jarri ditu, bezero eta bisitariei Gorbeia onena eskaini ahal izateko. Bizkaiko Gorbeialde Landa Garapenerako Elkarteak eta Zuiako Kuadrillak bultzatutako proiektua da.**

Urtero bezero eta bisitariei Gorbeia onena eskaini ahal izateko “Gorbeia Zure Etxean” turismo enpresak eta nekazaritzako elikagaien sektorea elkarlanean jarri dituen proiektua bat da eta hasieratik agente pribatuak parte-hartze eraginkor bat euki duena.

Helburua argi eta garbi dago: nekazal eta landa etxeak, hotelak, jatetxe eta tabernak, aisialdi-guneak, zerbitzu enpresak...hau da, Bizkaiko eta Arabako Gorbeia inguruetan turismo mailan lan egiten duten agente pribatu guztiak Gorbeia enbaxadoreak bihurtzea. Eta gauza bera ekoizle eta artisauak, hau da nekazaritzako elikagaien sektoretik bizi direnak. Nola? Euren establezimenduen bitartez Gorbeia Gune Turistiko informazioa eta produktuak helaraziz.

Horretarako, batetik, “Gorbeia Zure Etxean”

proiektuko kideek hainbat baliabideekin osatutako harrera-informazioko pack bat izango dute bezeroen eskura: zonaldeko mapa, Gorbeia bi Turismo Bulegoen kontaktu datuak, Gorbeia sare sozialeko profilak, (edo perfilak), Gorbeialde LGAK eta Zuiako Koadrillak argitaratutako gida

eta liburuxkak...Eta, bestetik, gure ekoizle eta artisauen eginiko produktuak eta artelanak euren etxeetan saldu edota erabiltzeko aukera izango dute (erabili jabetxan kasuan, adibidez).

Horrek guztiak ez du esan nahi proiektuko kide guztiak denetarik jakin eta eskaini beharko dutenik. Parte hartzeko maila desberdinak planteatu dira eta bakoitzak erabakiko du zeinean egon nahi duen, beti ere maila bakoitzeko arau minimoak beteta. Eta aurrera egin ahala, posible izango da batetik hurrengora pasatzea.

“Gorbeia zure etxean” agente pribatu eta bi erakundetako teknikoek elkarlanean eraturako ekimena da. Gauzatu ahal izateko, partaideek, formazio teknikoa jaso dute eta bi bisita egin dituzte Asturiasera eta Leongo Bierzo eskualdera, hango esperientzia arrakastatsua ezagutu ahal izateko: Canedo herriko Prada a Tope enpresa, Tresgrandaseko Errotako “Detektibe asteburuak”, Asieguko Gazta eta Sagardoaren Ibilbidea, besteak beste.

Hurrengo hilabeteetan proiektua erabat bukatuta geratuko da eta ikasitako guztia praktikara eramateko momentua ailegatuko da. Gorbeia bakoitzaren etxean eskaintzeko unea, hain zuzen ere.

## EN MARCHA EL PROYECTO “GORBEIA ZURE ETXEAN”

**Este proyecto ha puesto a trabajar conjuntamente al sector productor y a las empresas turísticas, para ofrecer a clientes y visitantes lo mejor de Gorbeia. Es un proyecto dinamizado por la ADR Gorbeialde, en Bizkaia y la Cuadrilla de Zuia en Alava.**

“Gorbeia en tu casa” es el proyecto que ha puesto a trabajar conjuntamente a empresas turísticas y al sector agroalimentario y artesano para ofrecer la mejor experiencia posible a los/as visitantes que cada año se acercan al Destino Turístico Gorbeia. Es una idea impulsada por la ADR Gorbeialde y la Cuadrilla de Zuia desde Alava y que ha contado desde el principio con la participación activa de los/as agentes privados.

El objetivo es claro, convertir a los agroturismos, casas rurales, hoteles, restaurantes y bares, empresas de servicios...es decir a los agentes privados que trabajan en el sector turístico en la parte tanto bizkaína como alavesa de Gorbeia, en embajadores de Gorbeia. Y lo mismo con las personas productoras y artesanas, como?, poniendo a disposición

de sus clientes toda la información y los productos agroalimentarios y artesanos del Destino Turístico Gorbeia.

Para ello, dispondrán de varias herramientas, por un lado, un pack de información sobre la zona, con mapas, los datos de contacto de las dos oficinas de información turística de Gorbeia, las guías editadas por Gorbeialde LGA y la Cuadrilla de Zuia, y por otro lado,

tendrán en sus casas los productos de nuestros/as baserritarras y artesanos/as, para darlos a conocer, utilizarlos en sus desayunos, menús, cartas, pintxos etc.

La participación podrá ser en diferentes niveles, y cada cual elegirá el compromiso que quiere adquirir: información sobre la oferta existente, venta de productos, utilización de dichos productos en su actividad..., siempre cumpliendo unos requisitos mínimos en cada nivel de participación.

Este proyecto al que hemos llamado “Gorbeia en tu casa” se está materializando con el trabajo en común de los agentes privados y del personal técnico de las dos entidades. Para llevarlo a cabo los/as participantes han recibido formación, han realizado dos visitas técnicas; una a Asturias y otra a la comarca del Bierzo, para conocer experiencias similares que están funcionando: La empresa Prada a Tope, en Canedo, muy diversificada (producción de uva, vinos, transformación de productos agrarios, alojamiento, restauración y visitas guiadas), el molino de Tresgrandas, con sus actividades complementarias entre las que destaca sus famosos fines de semana detectivescos y La Ruta’l Quesu y la Sidra de Asiegu, entre otras.

En los próximos meses el proyecto finalizará y llegará el momento de poner en práctica lo aprendido, ofrecer Gorbeia en todas nuestras casas.



## GORBEIA EZAGUTU

Uztailan, Gorbeia helmuga turistikoaren barnean, Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek eta Zuiako Koadri-lak entitateek bultzatutako **“Gorbeia Ezagutu”** ekimena ospatu zen. Honako ekimenaren helburua, kalitatea eta profesionaltasuna bultzatzea da, Gorbeia helmuga turistikoaren agente eta empresa turistikoak bi bailaren baliabide turistikoak ezagutzearen bitartez.

Horretarako, pasadan uztailan bi jardunaldi ospatu ziren, alde batetik, uztailaren 7an Aramaio (Araba) bisitatu zen gaur egun bi bailaretan bisita gidatuak eskaintzen duten Ttipia enpresaren eskutik, geroago Aldeko Eztia ikusi zen eta azkenik, Iturrieta Sagardotegian bazkaria egin zen. Bestetik, Bizkaiako aldetik, uztailaren 14an Ttipia enpresaren eskutik berriro ere Areatza ezagutu zen eta honen ostean Parketxea ikusi. Areatzatik abiatuta Zeanurira joan zen Olabarri errota ezagutzeko, Zuhaitz Etxeak ikusteko eta Saldropoko Hezeguneetan Ibarreta Jatetxearen eskutik pic-nic-a egiteko.

Ekimen honen barnean, poztasuna erakutsi zuten agente turistikoak bere inguruan duten baliabideak eta ez duten baliabideak ezagutzeko aukera izan dutelako, azken finean, honako ezaguera bezeroei informatzeko tresna baita. Honako ekimenan elkarlana eta sinergiak eratzeko aukera izan zuten ere helmuga osatzen duten bestelako agenteek ezagutzen direlako.



*En el mes de julio se llevó a cabo la iniciativa **“Gorbeia Ezagutu”** que promueven y coordinan dos entidades: La Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde de Bizkaia y la Cuadrilla de Zuia de Álava, dentro del destino turístico Gorbeia. Esta iniciativa tiene como objetivo impulsar la calidad y profesionalidad turística de las empresas y agentes turísticos que componen nuestro destino visitando diferentes recursos turísticos de las dos comarcas.*

*Para ello, se hicieron dos jornadas en el pasado mes de julio, por un lado, el 7 de julio se visitó Aramaio (Álava) a través de una visita guiada ofrecida por la empresa Ttipia que actualmente oferta visitas en las dos zonas, luego se visitó Aldeko Eztia y por último se comió en la Sidrería Iturrieta. En lo concerniente a la visita en la zona Vizcaína, el 14 de julio se comenzó haciendo una visita guiada por Areatza de la mano de Ttipia, se visitó el Parketxea de Areatza y se pasó a Zeanuri, donde se vio el molino de Olabarri, las Zuhaitz Etxeak y se comió en el Humedal de Saldropo un pic-nic de la mano del Restaurante Ibarreta.*

*Los agentes turísticos que acudieron mostraron su satisfacción por esta iniciativa en la que tuvieron la oportunidad de conocer mejor los recursos que tienen alrededor o recursos que incluso no conocían anteriormente para*

*poder facilitar esta información a sus clientes. En esta iniciativa, también tuvieron la oportunidad de conocer a otros agentes turísticos del destino Gorbeia y poder generar colaboraciones y sinergias entre ellos.*

*“En el mes de julio se llevó a cabo la iniciativa **“Gorbeia Ezagutu”** que promueven y coordinan dos entidades: la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde y la Cuadrilla de Zuia”*



**Gorbeialde**

Landa Garapenerako Alkartasun  
Asociación de Desarrollo Rural

## NUEVA DIRECCION DE LA ADR GORBEIALDE

## GORBEIALDE LGA-KO HELBIDE BARRIA

**N**os hemos trasladado a esta nueva dirección:

**H**au da gure helbide barrie:



GORBEIALDE LGA  
Askatasun, 34-A  
48143 -AREATZA-



### Gorbeialde ALDIZKARIA

GORBEIALDE LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA  
Askatasun, 34-A  
48143 -AREATZA-

Telefonoa: 94 631 55 25      Faxa: 94 631 71 01  
gorbeialde@gorbeialdea.com

[www.gorbeialdea.com](http://www.gorbeialdea.com)

